

# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## Isidoro Fagoaga, beratar gizon ospetsua ta bere liburutegia



Isidoro Fagoaga Beratar gizon ospetsua. (Aida argazkia).

Isidoro Fagoaga, Nafar euskalzaletan idazle ospetsuaren adiskideak kezkatuak gabiliz aspaldi ontan.

Gizona onen bizitza, lanak eta idazkiak, zer esan aundia daukate. Bere erria ta gizartea aberastuta uzten ditu eta bere ekintza guzti oien aztarnak balio aundia dute. Ia heroge urte inguruan dabil eta bere bizitza luza orren emaitza, ugaria, ederra, zora-garria izan da. Gure idazle ospetsua ba dijakigu, baina berak utziko ditu emen, esan aundiko gauza batzuek eta balio aundikoak diranak gaitzera; bere lanetarako erabilili dituan gaiak. Onekin esan nai degu, liburutegi on bat uzten dula, baita ere bere Opera garaiak iantziak, eta bere lagun ospetsu uen orolagarriak. Mingarria izango litzake, bere gauza eder oiek ludiko lau muturretan sakabanatuak galditza. Ingleterra edo Alemanian bizi izan ba litz, zainduko litzukete bereziki ta azkar asko. Orreleko gizon baten bizitza k, erri batentzat balioa bai daukate ta bere gauzak esan nai aundia.

Merez du erriak jakitea nolako liburutegia daukan gure Isidoro'k. Elerti alditik bere liburutegian gauza asko daude, ibilili aditi ta ipui gaiak elebarrak, batez ere ereslarri Buruz, Euskalerriko gaiak beste liburu asko. Eresi partituraren zer esanik ez; Wagner osorik, beste gaia asko alemanez eta italiarnez. Ba ditu ludi ontako gizon ospetsuek emandako idazki asko, batez ere, Sigfrido Wagner, Galarre, Toscanini, Marañón eta abar; garañ ontan idazle askoren eskutiztak ere bai.

Gela guzti auk sakabanatu ezker, asko galduko genuke ta Isidoro Fagoaga'ren nortasuna ta lanek nolakoak diran ezagutzeko, merezi luke dan danak batean gordetzea.

Gure gizon au, aritza eder baten antzekoa degu ta geroak jakin dezan nolakoak genuen gure zuzagitz sendo ori, bere edar ta ostu guztiak batean bear genituzke euki. Berak naikoa egin du, orain emaitza eundi ori zaindu bearra dauka. Ez dauka danak lo. Batzuek bere atetik dabil gauza batzuek edo besten eske. Bere

liburutegia onera edo arat oraman nai dute. Guk berriz, bere adiskide talde batek, nai deguna da, bere gauza guztiak, dan danak, BIDASO'KO BERA'N gelditzea. Isidoro Fagoaga Bera'tarra da ta bere sorterrria maite du benetan; guk berdin. Uste degu gure idazlearen gauzak Bera'n gelditu ezker, bere sorterrria ederragoa, aberatsegoa izango litzakea oraindik. Olako seme batek bere erria esko goratzen du. Iruña, Lekaroz, Azkoltia, Donostia edo Mexiko'ra eramango litzukete. Geroak arrazoiak esango luke, txorak otte zeuden gaurko gizonak.

Nola gorde Bera Bidaso'an toki berxi batean, Isidoro Fagoaga'ren liburutegia ta gauzak? Ez litzake gauza zaila izango gure uestez. Bere erria azitzen dijoa. Ikastetxe ederrak jaitzen ari zaizkigu. Intelektual giro bat sortzen ari da ta gizarte orreleko erriko liburutegia edo biblioteka bat bear du. Ba degu eredu polita bat Nafarroa bertan Leiza'ko errian, baita ere Elizondo'n. Euskal kutsu aundiko ta olategi bikaina daukan Leiza'ko errian liburutegi edo erriko biblioteka bikaina ikusi dugu, atsaldean irrikitzen dutena ta ondo eramateko zaindari batek zuzentzen duna. Bera'n beste orrenbeste egin leike errez. Bera'k biblioteka municipal bat bear du ta orrelako etxe bat izango litzake egokiena Isidoro Fagoaga'ren II burutegia ta gauzak eukitzeko. Ara garbi azaldu gure iritzia.

Oraintxe daukate aukera Bera'tarak beren erria, kultura maillean aberastutze. Bestela, geroago, emengo gizasemeak jakinen dute baka-rik beren erriar gizon ospetsu bat izan zala, besterik gabe. Isidoro Fagoaga-ren liburutegia Bera'n daukate ta jakintsu asko urbiduko litzake, batez ere eresi berekian partiturak ikustera ta erri polita onen izena esko zabalduko litzake. Garaiz bildu bear dira igaliak. Eran Deskarguna da, Isidoro Fagoaga'ren adiskide batzuek, idatzi degun bezala iritzi au azalduo, nai izan degula, Bidaso'ko Bera'tari emaitza eder bat aurreratu eta eskefi.

Erantzunaren zal gelditzen gera. LATXAGA

## Konzi lioaz Euskal Astekarrietan


Azken denbora huntan, Elizak itzuli-bueita bat egin duela lehenagoko moldeetatik hinarat, agerian dago; zenbaitendako haatik, jirabeita hori lasterregi egin nai izan dutela, aitzin eldera dauden apez batzuek, Vaticano-ko buruzagia bera ere kezatu da behin baino gelagoetan; bai eta, iduriz, gibelalderateko marxa puska bat ere gin erazi, zenbait sailletan.

Guk ezdugu afera hortan eudurrik sartu nai hemen; bainan ikuruz dezagun bederik elizgizon zuhurrek zer dioten. Atzo arto orandik, hemen gure herrian, elizgizon gelenak populuarekin erlesgi jokatu izan dirala, fama irabazia dugu. «Oraindik ere Eliza aipatu eta, ezdute Aita sailndua besterik ikusten, erregea bezala gain hartan denen nagusi. Harek izendatu apezpikuak, gobernadore batzu bezala, eta apezak, horien mutri».

«Beste sail batean, horien denen meneko populu, artaldea bezala; ardi tropa bat, egitekorik deus ere gabe, ter, ter, ter, artzaineri segi». Itxurapen hori dena, ezdute nik burutik atera, J. Hiriar-urruty apez idazle argiaren itzak baitira, BURUNDI-n mueloari oral arto egon denarenak. Eta segitzen du:

«Ez da hori egiazko Eliza. Azken Konzilioak Eliza aipatzen daukularik, ez da Aita sailndu, apezpiku eta apez-terik hasten; bainan lehen lehenik Eliza dela Jainkoaren populu erakasten dauku; bataiatu guziki populu hortan barne dira; bataioaren bidez, denek dute, Apez bakarra den Jesukristoren apeztasunean parte hartzen.

Apezak gutiztu da zaila (dio Hiriar-urruty hazpandarrak HERRIA-n) ondoko egunetan izanen ote denetaz apez aski, aintzek hori dute arrankura. Eta arrazoinekin. Hala ere, hori bezain beharra edo beharrago zaut beste galdue ha; kristuak oharzen direia Elizaren bizia eta Eliza zaren lana beren gain dituzte? «Apez eskasa makur handia da; bainan naski handia



heldu direnak. «Heldu den urtean, jinen zauku serora bat, Filosofia erakaste. Egun batez berdin laikoak, Teologia irakasa le ere izan ditazko: zertako ez? ezda apez ordenaren beharrik, Teologian jakintsu izaiteko.

«Aitor dezagun asko tokitan, eta Euskalherrian ere, girixtino gelenak uzur dautela; erlesionea, apezan afera daukate. Ez diot sekurki harria botatzen; frankotan gure faltez, apez faltez, dira laikoak hoin herabe. Ez ote ditugu guhaur hartu gider guziki eskuetan, eta girixtinoari erakatsi, heiek aski zutela ixi-ixila obeditzea, oitotz egitea eta eskean emaitza?»

«Zerbañ bada haatik kanbiaturik asken urte, hautan eta Euskalherrian berean ere». «Bainan beharrena hau zaut; Elizaren zerbitzari guren guziki, lalko ala apez, elkarrekin solasta gaiten; kalapitak ezdu deus onak». Bestalde diogu guk, Konzilioak erakutsi nai izan duela kristuaren arteko batasunaren egitea zela gure egindua; xede berri hortan gure Aita sailndua egon zen Konstantinoplan, Eliza ortodoxoaren buruzagi handia Atenagoras (oral berrik hila) ikusten; bai eta hau ere Erroman.

Anglikano-protestant Elizaren buruzagia ere izan da Aita sailndua ikusten; kristau guzian batasunari buruz ari da beraz hau ere. Eta kristau batzuen eta besten arteko ezkontzak ere, ezdaude gaitzetsiak lehen bezala.

A. APAT ETXEBARNE

# EUSKALERRIAN BARN

## FERMIN IRIGARAY

### «LARBREKO» ZENARI OMENALDIA AURITZEN

Datorren igandean, 10 ean, Auritzeko herrian (Burgete ederraz, Fermin Irigaray «Larreko» zenaren oroimenez «omenaldi-eguna» ospatuko da. Fermin Irigaray Goizuetara zena Auritz'en sortu zan 1909'go Urriarriaren 25 ean. Bertako alaba batekin erkondu zan Felisa Irigaray Apat «Porkaxonea» ren alaba zena. Medikuntzarako ikasketak egink Auritz'en, Bera'n eta Baztanen Iruñe-n medikuntzan ari izan zan. 1915 urtean Nafarroko Gaisotegira (Eritegia) etorri zan zirujanoa izendaturik urte batzuen ondoren Hospital horren zuzendaria izanik.

1949 urtean Iruñean II zan lauretan ogel urte zituelarik. Euskeraz lan aunitz idatzi zuen Euskal Herriko zenbait agerkarietan argitaraturik. Nafarroko Diputazioaren «Euskeraren Aldeko Sailla»-k, bere seme den Aingeru Irigaray den mediku famatu eta Euskeraren Akademikua bildutako «Larreko» ren zenbait lanak, liburu bat argitaratu zuen 1958 urtean, «XX-garren mendeko Nafarroako Euskal Idazlariak» da liburu honen izena. «Larreko» zen euskeraz idatzen zenean erabiltzen zuen izen-gotia edo izen ordezkoa.

Gure «Larreko» zena Nafarro guzian, txit ezaguna zan eta ez Nafarroan ez ezik baita ere Euskal Herri guzian ere, dela Ipar Aldeko Euskal herrian, dela Bizkaietan, Araba eta Gipuzkoan hemengo Euskal Herrian. Errotik maite zuen gure euskera. Euskeraz errazan, herrikol, menditarren usiez betetako hizkeran idatzen zuen, Euskal Herri guzietako euskaldunak ententiztekoa.

Hona hemen haren omenez prestatuko programa: Amaiketan: Euskal Meza konzelebratua Auritzeko,

## Elizan.

Amabietan «Muttikoak» delako dantza taldea aurretik joanik Agintariak, bertakoak eta Euskal Akademiarenak, «Oroit-harria» «Larreko» zenaren sortetxean agertzeko joan dira Alkatearen agurra adituz. Amabi tertetan: Euskaltzaindiaren bilkura idekia, Auritzeko Herriko Etxeko Bartzarre Aretogan, gai hauekin: Euskaltzaindiaren agurra, eta hiru hitzaldi labur: Aita Intzakoak «Larrekoaren garraio giroa» gaia arturik, Piarres Lafittek, «Larreko» euskal idazle» ari buruz, eta Eusebio Erkiagak, «Larreko» gizon» gaitzat edukirik.

Ordu bietan: Loizu Ostatuan, bazkaria. Arratsaldean, erromeria izanen da herriko plazan. Nafarrak bere euskal seme ospetsu eta aipatueroimenak egiten asia da. Nafarroko Diputazioak omenaldi honi bere eskua, eta itzala ematen ditu, zorionez.

«XENPELAR» IZENEKO SARIKETA ERABAKIAK Euskal-Tzaindiak urtean behin «Xenpelar» delako «Berto-Papere» Sariaketa bat antolatzen du.

Aurtengo irabaztalia ek honako hauek izan dira: Lehen Saria: «Sortetxe»-ri; Egilea: Xalbador. Bigarren Saria: «Zar saridun batek esanak», Eguilea: Jose Ayerbe. Irugarrena: «Deaburuen bat badago beti gertu gu zirikateko». Egilea: Inozentzi Olea.

Sariak: Amabi mila, zortzi mila eta bost mila pezetakoak dira. Sari hauek Donostiako Euskal Festeetan (egun hauetan prezisk) banatuak izanen dira.

IKASTOLETARAKO LIBURUAK Euskal Herriko Ikastolak gauzak behar bezala egiteko «liburutegi» bat behar dute izan. Horretarako klase guzietako gaiak artutako euskal liburuak liburutegi

hoietan izatea komenigarri bada oraindik egokiago iruditzen zait «Ikastoletarako euskal liburu bereziak» izatea. Liburu bera ta koak ugari azaltzen ari dira eta prezioak merkeak. Donostiako Iñaki Beobide da Ikastoletarako liburu hauen banakatzalea.

Lau liburu hauen izenak ekartzen ditut honera: Bizkaiko «Anaitasuna» izeneko euskal agerkarian azalduak: «OGIA» izenekoak; «Gauza harrigarriak» liburu sortan argitaratu da, Jazinto Setien jaunaren ardurapean eta ikastolen Erakasteen Elkarteak eragirik. Liburu bildumag hortan bere beste urte liburu ere agertu dira: «ERLEAK eta EZTIA», «OLENPEZARO» eta «OND-DOAK». Liburu bakoitzaren balioa: 15 pezeta. «PRINTZE TXIKIA» izenekoak; Saint Exupery famatuaren liburu La Salbador Garmendia jaunak euskeraz moldatu du. Prezioa: 75 pezeta.

«Ikastolako Hitzegia» delakoa. Erakasteen Elkarteak argitara eman du. Prezioa liburu da. 50 pezeta. «SIKOMOTRIZITATE-HEZIKETA» deitzen dena: Erakasteen Elkarteak ere argitaratua. Barcelona ko «Rosa Sensat» delako siko-pedagogi bulegoak antolatu zuena orain Jazinto Setien jaunak euskeratu du. 25 pezeta.

EUSKAL LITERARIO SARIA Iruñeko Caja de Ahorros Municipialak, bere eun urte betetzea dela ta, Euskal Literario Sari eder bat jarri du. Beste erdal literario sari bat ere antolatu du Eriberazko gaiak arturik.

Euskeraz idatzitakoak galibrezkoak izan behar dira, nafar idazleentzat bakarrik, eta EHUN MILLA PEZETA KOA! (100.000 pezeta). Sari honen nahikuzan, elburu eta asma da. Caja de Ahorros Municipialak esaten duen bezala «Estimular y honrar a los navarros escritores en vasculene y coope-

## VII PREMIO «AXULAR» 1972-1973

DIARIO DE NAVARRA, Iruña Iriburuko egunkariak sari bat erazten du, leen mailako Nafarroko Eskolategietan, 1.500 eta 750 pezetako AXULAR izeneko bi sarietara euskerazko artikulo edo erri kontu obereendako, euskal idatzlari nagusi aren oroitzapenetan.

Sarietan parte artzeko, baldinkuz ok bete berrak, dira:

I. Sari hontara sar ditazke eskolategiko adinean dau den aurrak. Euskeraz idatzi lantxoak igorriko dituzte. DIARIO DE NAVARRA, Pamplona, «Para el concurso de relatos vascos» izenburuarekin.

II. Lanak, goenez, bi orrialde edo kuartillako edadura izan bear du. Maisiak, Apezak edo adineko batek bear du, bere izenkin lana baietsi, aurrak izendeturak ezarriko ditu erriaren eta etxearen izenkin batera.

III. Kurso azkenean lantxo obereeneri Axular Saria emanen zaizkie, bai aurrari, eta bai maisu edo gidariari ere DIARIO DE NAVARRA egunkariaren Euskal orrialdean, aldi bakoitz argitaratu diran ipuin alpagarrieneri ere. 150 pezetako sari bana izanen dute.

IV. Sariak ipuñaz baino, edozein gaiaz izan ditazke: ala kontu, erri oitura edo kanta, iosteta, ibilaldi edo gertakari. Aurrek berek idatziak izan bear dute, inoren lauztarrik batere gabe.

V. Aurrek bear, dute mintzo diren bezala idatzi. Geiago konta da sarirako errateko, aira edo gatza, utsik gabeko ortografia era baino.

VI. Sari hontarako idatziak igortzeko epea. Garagarriaren 15 egunean bukatzen da. Saria emanen da, eta argitaratuko, Nafarroko-Zaindaria den, Jaundone Fermin bezpera egunean.

Iruñe'an, 1972 Irailan.

DIARIO DE NAVARRA convoca el «VII PREMIO AXULAR» de narraciones y cuentos populares en euskera entre los Centros de Enseñanza Primaria de Navarra, en homenaje al ilustre navarro, príncipe de los escritores de lengua vasca.

El premio se ajustará a las bases siguientes: 1.º Podrán concurrir los niños y niñas en edad escolar que envíen sus relaciones en vasculene al DIARIO DE NAVARRA, con la indicación «PARA EL CONCURSO DE CUENTOS VASCOS».

2.º Los trabajos, de una extensión de dos cuartillas, deberán acreditarse como originales del autor, mediante la firma del maestro, superior o sacerdote del Centro respectivo.

3.º Al término del Concurso se otorgará el PREMIO «AXULAR» y su importe de 1.500 pesetas de primer premio, y de 750 pesetas el segundo premio, y serán entregados respectivamente, tanto a los autores de los dos mejores trabajos publicados, como a sus maestros, superiores o sacerdotes.

Asimismo los trabajos merecedores de su inserción en DIARIO DE NAVARRA durante el Curso 1972-73, serán gratificados con 150 pesetas.

4.º El tema del PREMIO «AXULAR», es de libre elección y podrá versar sobre sucesos del pueblo, fiestas y excursiones, con preferencia a los cuentos y leyendas.

5.º El mérito preferente será la espontaneidad, siendo desechados los que acusen la ayuda de persona mayor. Por la misma razón, en la puntuación no serán tenidas en cuenta las posibles faltas de ortografía. Así que deben ser enviados los relatos tal como son escritos por los niños, sin corrección ninguna.

6.º La presente convocatoria es valedera para los trabajos presentados hasta el día 16 de junio de 1973. El premio será otorgado y publicado en la víspera de San Fermín, Patrón de Navarra.

Pamplona, septiembre 1972.

## Gure Ikastolak (II) EREINTZA

Nafarroan euskeraren alde egindako lan ixilak bere ondoreak ekarri du. Uzta aberatsa ikusten hasia da. Oso atzean gelditua diru lehenbiziko urratsak: 1957 garren urteraino itzuli beherko ginuke iturritik urak hartzekotan.

EUSKERAREN ALDEKO SAILA Nekazarien ereintza onetan bezala, lurra iraultze saken bat izandu zuen orainko euskal giroak. Denok dakigunez, gaizki ikusia den euskeraz gure herrian. Nolabeteko zorritz beteak ikusten zuten jendeak. Politika kutsua ekartzen zien gosgora. Ezin zen hitzik atera: gorria.

Gara hartako Diputazioaren zuten gizon bat bere kezak adierazteko lotarik gabe agertu zena: Migel Gortari, lendakari jauna. Jakintzaren alorrean hutsune latza bezala ikusi zuten gure hizkuntza zaharrenean baztartz hau eta, zerbañ egitekotan Diputazioaren alditik egin beharko zela iduritzen zitzaion. Hortik sortu zen «Principe de Viana-ren» banean «Euskeraren aldeko saila». Inoiz gertatu ez zena, Etxe-Haundian ari bat ideki zion gizon honek euskerari, eta ofizialtasunean sartu nafar hizkuntza. Gure errez haundien denboran ere ezagutu ez zena. Askorentzat hau da Gortari jaunaren ezaugarri nagusia; egin zuen gauzarik haundiena. Dirua baino lehenago bai da gizamaita eta jakintza. Gutxi dira hortaz jabetzen direnak.

EUSKAL HAURREN SARIKETA Saila honen eginkuzan nagusia euskal giroa sortzea zen; «Fomento», zion erdaraz. Ezin zen orduan beste gauza haundirik eskatu. Zerbatetik hasi behar eta, euskeraz zekiten haurrei sariak ematen abiatu ziren gizon prestu eta euskaltzale jator. batzuk. Aurrezki kutxan diru mordotxo bat eskaintzen zaien, ez gauza haundia baina, Diputazioaren izenean emana. Horrek zuten gehienik balio. Eta gero, sariaren agria. Bertolari eta kantari, Peru Txiki eta Aita Felipe, festa herrikoiak izaten ziren. Politak.

«Baionako Astea» Egun hauetan, Irailaren 4, 5, 6 eta 7 an Baionako «Musee Basque» delakoa BAIONAKO ASTEA deritza na egiten ari da. Gai bereziak aztertzen eta azaltzen ari dira «Euskal Herriari» dagozkio n a k: Ekonomikoak, lantegi eta lurriari buruzkoak, euskal musika eta gauro literaturari buruzkoak, poesi irakurketak, eta Euskal Unibersitateaz hitzaldi, elkarhizketa eta eginnahiak. Azken gaiari buruz Santamaria eta Haritschelhar jaunak gaur, zazpigarrenean, hitzgetekotan ziran.

«Beranduegi!», entuzten genuien beste askori. «Duela hoge urte izan balit! Edo, Garaia zen! Nahiko lotsa pasatu dugu gure denboran!» Amaxi zahar batek ziona: «izarretaraino jasoko al-duzue behingoa! Nere poza...»

Egia da gorrote bizia zioten basapiti lotsagarriak ere ezagutu genituela herri hoietan. Hor dabiliz beren mamukeri ilunarekin arrastaka; ez die inork kasorik egiten.

Haurren sarietarik jende askoren begiak ideki zituen. Euskeraz gurea zela eta balio haundiko hizkuntza, esaten zitzaion. Hiriko jaunak heldu ziren hori esatera; eta Diputazioaren izenean. Ez zen, beraz, gaizki ikusia euskeraz hitzgeta. Ez zen politika kontua. Argibide.

Orai, euskeraren alde egindako lan ixila bere uzta ematen hasia da; baina ez da bat bateko lana izan. Duela hamabost urte, berendako irabazirik gabe, herri herri hasia zuten gure artean diren gizon batzuk, lurra iraultzeko lan auzuna. Eta ez zaie behin ere damutu. SAGI